

ARTE GARAIKIDEA / EGONALDI ARTISTIKOAK (astl.)

# consonni radio Az-rekin



consonni editoriala Az-ko kolektibo egoiliarra da 2018az geroztik. Horiek horrela, [consonni radio con AZ](#) irratia sortu da, hitzarekin eta irratia entzutearekin esperimentatzeko eta kultura kritikoa zabaltzeko xedez.

«Entzun streaming bidez, edo zatoz saioaren bat zuzenean entzutera, atarian kokatutako gure irradi-estudio atseginean grabatzen ari garen bitartean. Gainera, online ere gaituzu entzungai, consonniren webgunean, Az-renean, edo ivoox moduko irradi-plataformen bidez».

Alicia San Juan kazetariaren Voces en el jardín (Ahotsak lorategian) saioak atal gehiago edukiko ditu 2019. urtean, eta hiru transmisio berri izango dira.

Alde batetik, soinu-artista eta ekoizlea den Xabier Erkiziak irratari buruzko saio bat izango du: Zerutik hurbil ez da ondo bizitzen. Eterraren istorioak.

Proposamen honetan, irratia sorreratik izan dituen eta izan zitzakeen formak berrazteruko ditu, XX. mendeko zenbait pertsonaiaren bidez

Zer egingo luke Barbarellak? Horixe da itzultzaile eta Ansible Fest zientzia-fikzio feministako jaialdiaren antolatzaileetako bat den Arrate Hildagoren soinu-espazioa. Gaur egungo feminismoko funtsezko gaiak zehatz aztertzen ditu, zientzia-fikzioaren bidez. Bisturia eskuan, testu espekulatibo bat hartu, eta eztabaida ateratzen du, beste fikzio batzuetan eta gaur egungo pentsamendu feministan haren mutazioak bilatzeko. Arraterekin batera, Laura Lazcano kritikaria egoten da, ikus-entzunezkoei eskainitako atalean.

Programazioa osatzeko, beste saio bat egongo da, hain zuzen, martxoaren 1ean amaitu zen deialdi publikoaren emaitza, baina oraindik erabaki gabe dago. Informazioa Azkuna Zentroaren eta consonniren web-orrian emango da aditzera.

consonni

////////////////////////////////////

Asteartero

18:00

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 [www.consonni.org](http://www.consonni.org)

 [@consonniart](#)

 [@\\_consonni\\_](#)

 [@\\_consonni\\_](#)

 [consonni radio](#)

---

**consonni**  
— RADIO